

urola garaia

Hoy y mañana se desarrollará un taller organizado por Eraldatzen en Urretxu

LA CHARLA SE TITULA 'EMPODERAMIENTO EN LA VIDA COTIDIANA' Y SE DARÁ EN LA CASA DE CULTURA

URRETXU. La asociación pro mujer Eraldatzen ha programado dos talleres en el marco del foro *Naro* de igualdad organizado por Emakunde. El primero de ellos se desarro-

llará hoy y mañana y el segundo el día 29 de mayo.

Hoy y mañana, de 18.00 a 20.00 horas en la casa de cultura de Urretxu, se impartirá el taller *Empoderamiento en la vida cotidiana*. La ponente será la profesora Carmen Sara González.

El segundo de los talleres tendrá lugar el día 29. Se denomina *Inmigración y violencia* y será impartido por Patricia Ponce, de Haurralde

Fundazioa. La sesión tendrá lugar en la casa de cultura Zelai Arizti de Zumarraga de 16.00 a 20.00 horas.

Ese mismo día y en ese mismo lugar, de 11.00 a 13.00 horas, se hablará acerca de la resolución de los conflictos en las asociaciones. Eraldatzen anima a los ciudadanos a tomar parte en estas actividades y recuerda que es necesario inscribirse. Para ello hay que llamar al número de teléfono 665 720723. >A Z

URRETXU > ButaK 21 proyecta películas hoy y mañana

El cineclub ButaK 21 de Urretxu y Zumarraga ha programado dos proyecciones para esta semana. Hoy, dentro del programa *Clásicos en DVD*, se ofrecerá la película *El viaje a ninguna parte* de Fernando Fernán Gómez. La sesión tendrá lugar en el salón Labega de Urretxu y dará comienzo a las 21.30 horas. Mañana, a las 22.15 horas en el salón Zelai Arizti de Zumarraga se proyectará el film rumano *4 meses, 3 semanas, 2 días*. >A Z

Lekao elkarteak mendi irteera antolatatu du

Lekao kultur elkarteak Ausa gaztelura mendi mar txia antolatatu du igandean honetarako. Mendizaleak goizeko 9.30ean elkar tuko dira euren autoekin Iparragirre plazan eta Larraitzera joango dira. Bertan, 10.00etan, Goierriko eta Tolosaideako lagunekin elkar tuko dira. Ondoren Nafarroako erresumako gaztelua izan zenera joango dira eta bertan antolatuta dagoen ekitaldian parte hartuko dute. Bukatzeko, Larraitzera jaitsiko dira eta nahi dutenek bertan bazkalduko dute. Horretarako 607 111202 telefono zenbakira deitu behar da. >A Z



Segurako sarrera, ezkerretara parrokia ageri dela

Duela 400 urte Legazpi Seguraren gendik banandu zen eta legazpiarrek sekulako ospakizunak antolatu dituzte independentziaren mendeurrena ospatzeko. Igandean Goierriko herria joango dira. Ondo hartuko al dituzte? TESTUA ETA ARGAZKIA **Asier Zaldúa**

...eta segurarrek zer diote?

XIV. mendean legazpiarrek Seguraren babesa eskatu zuten, jauntxo feudalekin zituzten arazoak zirela eta. Berehala damutu ziren hartutako erabakiaz, euren ustez Segurak ez baitzuten espero zuten laguntza eskaini. Hori dela eta, independentzia eskatu zuten 1564an egin zuten lehen saiakera, baina 44 urte pasa ziren helburua lortu baino lehen. Aurten banantzearen laugarren mendeurrena bete da eta legazpiarrek sekulako ospakizunak antolatu dituzte. Igande honetan bertan Segurara joango dira oinez. Euren arbasoek agindutako babesa eskaini ez zitelako kargu hartuko ote diete segurarrei? Goierriarrek ondo hartuko al dituzte?

Astearte goizean egu ardi bikaina egin zuen eta nekez egon zitekeen inon Segurako plazan bai-

no hobeto. Gema Telleria eta Izar Larrea izaba-lobak taberna bateko terrazan eserita zeuden eta gustura asko erantzun zituzten alpatutako galderak. Baita beste batzuk ere. Ez zekiten Legazpi independentziaren mendeurrena ospatzen ari dela. "Nahiko lan badugu Seguran bertan. Gaur egun dena ospatzen denez, ez zaigu inporta legazpiarrek gugandik banandu zirenekoa ospatzea. Guk herriaren sorreraren 750. urteurrena izan genuen duela gutxi", azaldu dute.

Normala den bezala, Segura Legazpi baino nahiago dute. "Hemen lasaiago bizi gara. Segura munduko tokirik ederrena da. Gainera, Legazpi lanarekin lotzen dut. Izan ere, nire senarra Patrizio Etxeberriaren lantegian aritu zen. Segurako jende asko joaten da Legazpira lanera. Patrizioren Idiazabalgo lantegia itxi zenetik Egu-

XIV. mendean legazpiarrek Seguraren babesa eskatu zuten, baina berehala damutu ziren

Bi herrien arteko harremana ez da eten, segurar askok Legazpin egiten baitute lan

nero autobus bat joaten da" aipatu du Telleriak.

Bere azkenekoz Legazpin izan zenetik, ordea, denborá asko pasatu da. Bere iloba, berriz, festetan joaten da: baraketara. Banantzea bi herrirentzat ona izan zela uste dute. "Egun ez huke zentzurik izango horren aparte dauden bi herri elkarrekin egoteak. Gainera Legazpi asko hazi da eta jan egingo gintuzke", esan dute.

Beharbada asmo horrekin joango dira legazpiarrek Segurara igandean... "Guk denak ondo hartzen ditugu... Baita Idiazabalgoak ere! Pike apur bat dugu, baina beraiek berezi samarrik direlako besterik ez", diote umorez.

Laureano Telleriak serioago erantzun zituen galderak. Prozesioak antolatzen dituen taldeko kidea da eta herriko ondarea mantentzeko gogor lan egiten du

Bazekien Legazpi banantzea ospatzen ari dela "Legazpi bere arazoak izango zituen banantzea eskatzeko... Garai hartan Segura lauzapabost jauntxoaren eskuetan zegoen eta herritarrek ez zuten kontu horren berririk izango".

Segura eta Legazpi aspaldi banandu baziren ere, bi herrien arteko harremana ez dela eten gogoratu du. Izan ere, XIV. mendean legazpiarrek segurarrengana jo zuten babes eske eta XX. mendean segurarrek izan ziren Legazpira joan deen... "Nik ez dut Legazpirekin harreman handirik, baina hementxe jende asko bizi da bertan. Izan ere, garai batean %90ak han lan egiten zuten. Oso herri ezberdinak dira baina bizimoduaren ez dago alde handirik. Guk ere behar ditugun zerbitzu guztiak eta inguruan Beasain eta Ordizia bezalako herri handiak ditugu", amaitu du.